



ZERBITZUA ESLEITZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA

ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEA, DINAMIZATZEA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEA ETA KUDEATZEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauetan oinarrituko den kontratuaren helburua honakoa izango da: Zarauzko Udalaren Emakumeen Etxearen proiektua martxan jarri, bertan garatuko diren programak eta zerbitzuak prestatu eta, irekitzen denean, dinamizatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea, Plegu hauetan zehaztutako baldintzen eta zehaztapenen arabera. Kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira: kontratuan, plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Agiri horiek guztiek kontratu izaera dute.

Oinarri hauen xedea da baldintza teknikoak jartzea.

CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona: 85312300-2

Kontratu honen xedea sorta bakar batean dator

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Egingo den kontratua zerbitzuetako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratua (17 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.

Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 156 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetzak izango du kontratazio hau egiteko ahalmena.

Kontratazio-organo horrek du administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak bat datoz araudi aplikagarriekin. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa edota entitate esleipendunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpregnatzeko.

4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo



profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Pertsona juridikoak esleipendun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariak agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta esleipena egin baino lehen enpresa lizitatzaileraren nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa-ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere esleipen prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA

5.1. Kontratuak gehienez bi urtetako iraupena izango du

5.2. Gauzatzen den hurrengo egunetik aurrera urtebeteko iraupena izango du kontratuak. Kontratu luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere bi urtekoa izango da.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino lau hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua

6. AURREKONTUA. LIZITAZIO TASA

6.1. Kontratu honen modalitatearekin bat etorriz, gehienezko prezio hau jarri zaio: urteko 48.400,00 euro, BEZ barne (40.000,00 euro + 8.400,00 euro BEZ).

Lizitatzailerak kopuru hori hobetu ahalko dute eta aurkeztutako eskaintzetan sartuta egongo dira zerbitzuaren era guztietako gastuak, eta baita aplikatu beharreko gainerako zerga eta karga-tasak ere, bereziki BEZ, baldin eta aplikatu egin beharko balitz.

Esleipenaren prezioa urtekoa izango da, eta zerbitzua noiz ematen hasten den kontuan izanda esleipenaren prezioa proportzioan murriztuko da.

Esleitutako zenbatekoa zerbitzua emateko izango da. Egingo diren programa, ikastaro, jarduera, etabarrak antolatzeko kostua bere osotasunean Udalak bere gain hartuko du.

6.2. Era berean, SPKLren 101.a artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau izango da kontratuaren balio zenbatetsia, noiz hasten den eta izan ditzakeen luzapenak kontuan hartuta, eta BEZ sartu gabe: 80.000,00 euros

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio prezioen berrikusketarik



8. FINANTZIAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, honako partida honetan: 1 1301 227 14 231 50 2019 (6027)

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

9. ORDAINKETA

Prezioa zatikatuta ordainduko da. Horretarako enpresa edota entitate esleipendunak hileroko FAKTURA bat aurkeztuko du, aurreko hilean egindako lanei dagokiena.

Faktura onartu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da.

Enpresa edo entitate esleipendunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziu-tagirian kendura proportzionalak egingo dira.

Alkatetzak 2013ko urriaren 29ko 1472 Dekretuaren bidez onartu zituen Zarauzko Udalarik faktura elektronikoa bidaltzeko baldintza teknikoak. Bertan adierazitakoaren arabera, faktura elektronikoko horiek «Facturae» formatua izan behar dute (horri dagokionez, Udalgidaren web-orrian kontsultatu ahal izango da «Facturae» formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa, Interneteko helbide honetan: www.udalgida.net).

10. BERMEAK

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa edo entitate lizitatuak, errekerimendua egin eta hurrengo egunetik kontaktatzen hasita, 10 egun balioduneko epea izango du berme bat eratzeko, hain zuzen ere, esleipenaren zenbatekoaren % 5koa (BEZ gabe).

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 108.1. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.

Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da 2095/5076/41/1060000246 zenbakiko kontu korrontean, eta abonu-agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korrontean baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko.

Bermea osorik edo, halakorik bada, zati bat, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik itzuliko da, berme-epea bukatutakoan eta esleipendunak kontratuko obligazioak bete ondoren.

II.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

11. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura ireki bidez esleituko da.

Kontratuaren esleipena egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen



garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:

11.1. Formula bidez ebaluatu daitekeen irizpidea

- Eskaintza ekonomikoa, lizitazio-tasaren arabera. Gehienez 55 puntu
- Profesionalen formazioa. Gehienez 10 puntu
- Profesionalen lan-esperientzia. Gehienez 10 puntu

11.2. Formula bidez ebaluatu ezin den irizpidea

- Proiektuaren diseinua. Gehienez 25 puntu.

11.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA GEHIENEZ 75 PUNTU

Puntuazioa ondorengo metodoaren bidez emango da, eta eskaintzek aurkeztutako kontratuaren urteko prezioa hartuko da kontuan:

11.1.1. Eskaintza ekonomikoa, lizitazio-tasaren arabera. Gehienez 55 puntu.

$$Vo = (Vim/Vio) \times 55$$

Esanahia:

Vo= eskaintzaren balorazioa

Vim= eskaintzaren zenbateko txikiena (Vio-ren txikiena)

Vio=eskaintzaren zenbatekoa

Eskaintzak neurritz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatuzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:

- Lizitatuzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarriko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu.
- Bi lizitatuzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu.
- Hiru lizitatuzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurritz kanpokotzat joko da.
- Lau lizitatuzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatu da, adierazitako azken kasu horretan sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru eskaintzekin kalkulatu da.

Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago, lizitatuzaile horiei 5 egun baliouduneko epe bat emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan exekutatu ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin.

11.1.2. Zerbitzua emango dutenen formazioa. .Gehienez 10 puntu

Lizitazioan parte hartzeko kaudimen-baldintza modura kontuan hartu ez diren alderdiak bakarrik baloratuko dira



a) Hezkuntzarekin, soziologia, psikologia, dinamizazio, berdintasun edota migrazioarekin zerikusia duten arlotan goi mailako ikasketak. Gehienez 8 puntu

-Doktoretzak: 2 puntu

-Masterrak: 2 puntu, bakoitzagatik, eta gehienez 4 puntu

-Graduondoko diplomak: puntu 1 bakoitzagatik, eta gehienez 2 puntu

b) Aplikazio informatikoen erabilerarekin loturiko gaietan formakuntza (blogak, web orriak eta/ edo sare sozialak. Gehienez 2 puntu

Bakarrik 50 orduetik gorako formakuntzak onartuko dira

-50-75 ordu: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko

-76 ordu eta hortik gora ordu: 0,5 puntu ikastaro bakoitzeko

11.1.3. Zerbitzua emango dutenen lan esperientzia. .Gehienez 10 puntu

Zerbitzua emango duen talde esleipenduneko profesionalen sei hilabete baino gehiagoko eskarmentua, lizitazioaren zerikusia duten antzeko programa edota zerbitzuetan: 0,2 puntu hilabeteko

11.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 25 PUNTU

11.2.1. Proiektuaren diseinua. Gehienez 25 puntu

Atal honetan hurrengoak baloratuko dira:

-Zerbitzua garatzeko proposamena: programak, ikastaroak, planak, jarduerak...: gehienez 5 puntu

-Helburuak lortzeko programazioa: gehienez 5 puntu

-Emakumeen etxea sozializatu eta hedatzeko jardueren proposamena: gehienez 5 puntu

-Etxean emakumeen partehartzea eta inplikazioa sustatzeko proposamenak (emakumeen talde eta elkarteak, emakume etorkinak, gazteak, jubilatuek,gehienez 5 puntu

-Etxearen dinamizatorako erabiliko den metodologia eta zerbitzuen eta programen ebaluazioa. Gehienez 5 puntu

Atal horren garapenak DIN A4 formatuko 30 orri hartuko ditu gehienez. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 146.3 artikulua arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan, enpresa edota entitate lizitatuak % 50eko gutxienezko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzeakoak ez diren irizpideen multzoan. Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko **12,5 puntutara** iristen ez diren eskaintzak.

12. ESKAINTZEN AURKEZPENA

Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan aztertu ahal izango da, bulegoak jendearentzat irekita dauden ordutegian, kontratuaren iragarkia Zarauzko Udaleko **kontratatuzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita egun baliodun guztietan, harik eta eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan:



KONTRATAZIO UNITATEA
Kale Nagusia 29 - 20800 Zarautz
Tel: 943 005100 Faxe: 943 005200
E-maila: kontratazioa@zarautz.eus
Kontratzailearen profila: <http://www.zarautz.eus>

Eskaintzak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, iragarkia Zarauzko Udaleko **kontratzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita **HOGEI EGUN NATURALEKO** epean, eta azkenen eguneko 15:00ak arte. Baldin eta epearen azkeneko eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.

Lizitatuzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, nahiz eta aldaera edo alternatibak onartuko diren. Bakarrak aurkeztu bada, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

Lizitatuzaileek agiriei edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.

Epea igaro ondoren aurkeztutako proposamenik ez da onartuko, nahiz eta epea amaitu aurretik postetxean aurkeztu zirela egiaztatu, non eta postaz bidali zen egunean bertan eskaintza bidali zen data egiaztatzen duen telex, fax, telegrama edo mezu elektronikoa bidaltzen ez bazaio kontratazio organoari. Eta, adierazitako egunetik hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Enpresa edota entitate lizitatuzaileek hiru gutunazal aurkeztuko dituzte itxita (A, B eta C). Gutunazal bakoitzean honako hau idatziko da: "PROZEDIRA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIO HONETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA: "ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEA, DINAMIZATZEA, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEA ETA KUDEATZEA"

Gutunazal bakoitzean enpresaren edota entitatearen izena eta proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak jarriko dira, zeren izatez izenpetzen duen zehaztuz. Hiru gutunazalak izenpetuta egongo dira.

"A" gutunazalaren azpтитulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" gutunazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>

*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK

Hainbat enpresa aldi baterako enpresa elkarte gisa aurkeztu badira lizitazio honetara, enpresari horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.



Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 69. artikulua 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.

****ATZERRIKO ENPRESAK**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaleei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

b) Helbide elektronikoa, jakinarazpen eta errekerimenduak egiteko, argibideak edo dokumentazio osagarria eskatzeko eta/edo konpon daitezkeen akatsen berri emateko (II eranskineko ereduaren arabera).

“B” gutunazalaren azpititulua hau izango da: “ESKAINZA TEKNIKOA”. Hona hemen “B” gutunazalean aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako esleipen-irizpideak betetzen direla egiaztatzekeo agiriak.

Plegu hauetan adierazitako esleipen-irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaleak.

Gutunazal horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen esleipen-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak “C” gutunazalean sartuko dira. Datu horietako edozein “B” gutunazalean sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekeoak ez diren esleipen-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.

“C” gutunazalaren azpititulua hau izango da: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA”. Hona hemen “C” gutunazalean aurkeztu beharreko agiriak:

Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen III eranskineko ereduaren arabera eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.

Gutunazal horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren esleipen-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzekeo ez dena); horiek guztiak “B” gutunazalean sartuko dira.

Datu horietako edozein “C” gutunazalean sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekeoak diren esleipen-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.

13. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

2016ko irailaren 29an egindako bilkuran Udalbatzarrak besteak beste erabaki zuen Zarauzko Udaleko kontratazio-mahai Iraunkorra eratzea. Mahaiaren osaera eta funtzionamendu-arauak ere finkatu zituen. 2018ko maiatzaren 31an egindako bilkuran, berriz, Udalbatzarrak, osaera aldatzea erabaki zuen.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du (“A” gutunazala). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.



Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du zein enpresa edota entitateak betetzen dituzten plegu hauetan finkatutako hautaketa-irizpideak, eta espresuki adieraziko du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Dena dela, eskaintza ekonomikoak jendaurreko egintzan irekitzen direnean irakurriko da guztien aurrean zerrenda hori.

Egintza horretan, onartutako enpresa edota entitate lizitatzailen "B" gutunazala irekiko da (formula bidez ebaluatzeakoak ez diren irizpideak), eta gutunazalean sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.

Jarraian, "B" gutun-azaletako edukia udal teknikariei emango zaie, formula bidez ebaluatzeakoak ez diren esleipen-irizpideei buruzko txostena egin dezaten, eta horretarako Murgil elkarteko ordezkariaren laguntza izango du. Txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.

Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa edota entitate lizitatzaille bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.

Kontratazio-mahaiak, JENDAURREKO EGINTZAN elkartuta, enpresa edota entitate lizitatzaille bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" gutunazalak ireki (formula bidez ebaluatzeako irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

"C" gutunazala irekitzeko jendaurreko egintza Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da.

Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, "C" gutunazalak udal teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzeakoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten.

Gero, Kontratazio-mahaiak kontratuaren esleipen proposamena aurkeztuko dio Alkatetzari.

14. KONTRATUA ESLEITZEA

Eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da kontratuaren esleipena. Epe hori igaro eta oraindik esleipenik egin ez bada, lizitatzailleek eskaintzak erretiratzeko eskubidea izango dute.

Dena den, esleipena nahitaez egin behar da, baldin eta aurkeztutako eskaintzaren batek administrazio baldintzen agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kasu horretan lizitazioa ezingo da hutsik laga.

Edonola ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 152 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratazio-organoak, esleipena egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla-eta; edota tramitatutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu.

Kontratuaren esleipenak beti arrazoitua izan behar du, eta parte hartu dutenei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.



Kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusita, eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa edota entitate lizitatuileari eskatuko zaio ondorengo zirkunstantzietan buruzko frogagiriak aurkez ditzala, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita zazpi egun balioduneko epean:

a) Lizitatuileak bere izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala eta notario-ahalorde askietsia.

b) Lizitatuilea pertsona juridikoa izanez gero, eratzeko edo aldatzeko eskritura aurkeztuko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin inskripzioa derrigorrezkoa bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legediaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatuilearen jardura zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorritz.

c) Indarrean dauden xedapenek agindu bezala, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.

d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizunpeko aitorpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela bajarik hartu.

e) Enpresa edota entitate lizitatuileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala duela ziurtatu beharko du:

e.1.)Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

Kontratatu nahi den eremuari dagokion urteko negozio bolumena enpresari edota entitatearen jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko datak kontuan hartuta azkenengo hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona,40.000,00 euro edo handiagokoa izan behar du.

Lizitatuilearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak edo Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da eta bestela, inskribatuta egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuan bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek bere urteko negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legezkatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

e.2)Kaudimen teknikoa:

Azkeneko hiru urteetan egindako zerbitzuen zerrenda: diru-kopurua, datak eta hartzailea –publikoa edo pribatua– adierazita. Egindako zerbitzuak egiaztatzeko, organo eskudunek egindako edo ikus-ontsitako frogagiriak aurkeztuko dira, baldin hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan bada; eta hartzailea pribatua izan bada, horrek egindako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hori eduki ezean, enpresariak edota entitateak egindako aitorpen baten bidez frogatuko da; kasu bakoitzean, agintaritzaren eskudunak zuzenean emango dio kontratazio organoari ziurtagiri horien berri.

Talde esleipenduneko profesionalak egiaztatatu beharko dute:

- * Erdi mailako edo goi mailako titulua edo unibertsitateko gradua izango du honako



diziplinetan: psikologia, pedagogia, psikopedagogia, soziologia, antropologia, giza-zientziak edo esku-hartze soziala.

- * Berdintasun gaietan prestakuntza (gutxienez 100 ordukoa) edo arlo horretan gutxienez sei hilabeteko esperientzia izatea.

f) Administrazio baldintzen agiriko 18. atalean adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzea.

g) Behin betiko bermea jarri izanaren frogagiria.

h) 300.000,00 euroko erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia ekarri.

Oharra: a), b) eta e) letretan adierazitako zirkunstantziak honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzailen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 84. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailaren zinpeko aitortpena aurkeztu behar da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziak ez dutela inolako aldaketarik izan.

Esleipen dataren aurreko urtean Zarauzko Udalak izapidetutako beste kontratazio-espeditente baterako A atalean eskatutako dokumentazioa aurkeztu dutenek ez dute berriz aurkeztu beharrik izango, baldin eta agiri horietan aldaketarik egon ez bada. Zirkunstantzia hori erantzukizuneko aitortpenaren bidez agerraraziko dute.

Aurreko hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost egun baliodunetan egingo da esleipena, betiere lizitatzailak adierazi zaizkion dokumentuak aurkeztu baditu eta behin betiko bermea jarri badu.

Eskakizun horiek zehaztutako epean bete ez direlako, esleipena egin ez bada, beste deialdi bat egin aurretik, esleipena hurrengo lizitatzailari edo lizitatzaileri esleitzeko aukera du Administrazioak, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hala egitea posible bada eta esleipendun berria ados badago. Egoera horretan, hamar egun balioduneko epea irekiko da aipatu berri den guztia burutzeko.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 152.2 artikuluan aurreikusten duenari jarraituz, kontratua egiten ez bada, edota esleipenaren aurretik kontratazio-organismoak erabakitako prozedura honi uko egiten bazaio, Administrazioak zehaztuko du lizitatzaileri eragindako gastuaren zenbatekoa, aurretik haiekin egon eta justifikazioak entzun ondoren.

Aurkeztutako eskaintzak, bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatutakoak, bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua esleitu ondoren errekurtsioak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da.

Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak erabaki dezake pertsona edo enpresa lizitatzailak aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.

Administrazioaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, atzerapenak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa edota entitate esleipendunari.



15. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.

III. KONTRATUA BETETZEA

16. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Zarauzko Udaleko Parekidetasuneko teknikaria izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

17. KONTRATUAREN XEDEA ETA ZIGORRAK

Kontratua enpresa edota entitate esleipendunaren gain eta kontura beteko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratua betetzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta, halakorik balego, espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Enpresa edota entitate esleipendunari edo bere mendeko pertsoneri leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo ez-egiteengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.

Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak tarteko, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutu bada, Administrazioak kontratua bertan behera uzteko edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikustako zigorrak jartzeko erabakia hartu ahal izango du.

Kontratuaren xede dena gaizki betetzen deneko kasuetan kontratazio organoak zehazpenak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan, kontratuaren esleipen prezioaren %1etik %10 era bitartean

18. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

18.1. Hizkuntza arloan. Eskubideak eta betebeharrak euskararen erabileran.

1. Kontratuaren zerbitzu hizkuntza: Kontratu honen xede diren prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da, beraz, erabiltzaileekin harremana euskaraz izango da nagusiki, eta euskaraz izatea sustatuko da.

2. Hizkuntza gaitasuna: administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez.

Horrela, bada, enpresa esleipendunaren langile guztiak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.



Hizkuntza gaitasuna honela egiaztatuko da: zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute.

3. Hizkuntza paisaia: errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez edo eta euskaraz egingo dira.

Euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Euskara Departamentura bidaliko dira zuzentzera.

4. Udalarekin harremana: kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

5. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLaren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 223.g) artikulua arabera.

6. SPKLaren 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko hizkuntza-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikusapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da.

18.2. Enpresa edota entitate esleipendunaren lan eskubideak eta betebeharrak

1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarreatik, bai zerbitzuaren beharreatik), baja hori bete aurretik esleipendunak Udalari horren berri emango dio.

Esleipendunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Zarauzko Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango esleipendunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

2. Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatuak, esleipena lortzen badute.

Halaber, behin kontratua esleitu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartutako egingo dira.

3. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa edota entitate esleipendunak, kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

4. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikulua arabera.

18.3. Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak



1.- Enpresa esleipendunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantza.

2.- Enpresa esleipendunak komunikazio ez-sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 26. artikulua).

3.- Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren esleipendun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 36 artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 1.3 artikulua).

4. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikulua araberako.

19. ENPRESA EDOTA ENTITATE ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Enpresa edota entitate esleipendunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeak dakartzan lanen ondorioz hirugarrenen egindako kalteak eta galerak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Horren ondorioetarako, 300.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du.

Estaldua horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan eta, halakorik balego, luzapenetan.

20. KONTRATUA ALDATZEA

Behin kontratua burutzen denean, interes publikoak eragindako aldaketak bakarrik sartu ahalko dira, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLaren 205. artikuluan jarritako kasuetan eta mugekin.

Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, proposamena idatziko dute dagokion departamentuak eta kontratuaren arduradunak, aldaketa arrazoitzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriarekin batera. Administrazioak enpresa edota entitate kontratistari entzunaldia emango dio, aldaketa onartu aurretik. Kontratazio organoak onartu beharko ditu aldaketok; baina, aurretik, SPKLaren 191 eta 207 artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatuko da eta dokumentu administratiboa formalizatuko da, lege bereko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea berregokituta, hala behar bada.

21. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK

Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira SPKLaren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuarako jasotakoak.

Kontratua bukatzeko berariazko arrazoiak izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), SPKLAN jartzen duen moduan.



22. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari honakoak dagozkio: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea c) interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPK Lan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.

23. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA AZPIKONTRATAZIOA

Zarauzko Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo du lanen zati bat hirugarren batekin hitzartu edo azpikontratatu.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

24.1. Enpresa esleipendunak hauetan xedatutakoa bete beharko du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

24.2. Baldin, enpresa kontratistak edo subkontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa beteko du, bai eta honako arau hauek ere:

1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak hitzarmenaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, adierazitako xederako ez beste baterako erabili.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.
4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete delako edo suntsitu delako iraugi ondoren ere, betebeharrak iraun egingo du.
5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:
 - a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin,



abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa esleipendunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa esleipendunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.

- b) Esleipendunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.
- c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, esleipendunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

25. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.

Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

26. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorritz.

Kontratua interpretatuzetik, aldatuzetik, bukatuzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorritz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute.

Zarautz, 2019ko abuztua



I. ERANSKINA. DEUC

II. ERANSKINA.

..... jaunak/andreak (adinez nagusia; NAN:) bere izenean edo enpres(ar)en ordezkari gisa, honako helbide hau izendatzen du, lizitazio hau dela-eta edozein jakinarazpen jasotzeko; eta hori 39/2015 Legeak 41. artikuluan xedatutakoari jarraiki:

Telefonoa(k):
Helbide elektronikoa:
Posta helbidea:
(Enpresak) - Enpres(ar)en IFK:
(Pertsona fisikoak) - Lizitatzailaren NAN:

....., 2019ko.....ren(e)an

sinadura



III. ERANSKINA. ESKAINTZA

Lizitatzaillearen datuak:

Izen-abizenak

Helbidea

Posta Kodea Nortasun-agiria Telefonoa

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

Izen-abizenak

Helbidea Posta Kodea

Nortasun-agiria edo IFK (pertsone juridikoa bada): Telefonoa

ZARAUZKO EMAKUMEEN ETXEAREN PROIEKTUA EGITEKO, DINAMIZATZEKO, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK PRESTATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA egiteko Zarauzko Udalak deitutako prozeduraren berri izan dut, eta hona hemen nire

ADIERAZPENA:

1.- Hitz ematen dut kontratua onartutako klausula-agiriaren arabera burutuko dudala, hurrengo prezio eta baldintzetan:

- euro BEZ barne (.....+BEZ).

- Profesionalen formazioa:

- Profesionalen lan-esperientzia:

2.- Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-oso-rik.

3.- Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditut.

4.- Era berean, lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena bete beharko dut.

.....-(e)n, 2019ko -ren-(e)an

sinadura